

## LARRATXO PASEALEKUKO 26. ZENBAKIAREN ALBOAN APARKATZEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko maiatzaren 15ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegintzaldian, Larratxo pasealekuko 26. zenbakian dagoen Bellavista jubilatuen etxearen kanpoaldean hainbat konponketa egin ziren sarrera irisgarriagoa izateko: arrapala bat eraiki zen kurbaren maila jaisteko eta burnizko “arquillo”ak jarri ziren. “Arquillo” horiek bata bestearen alboan jarri ziren (normalean metro bateko tartea uzten da beraien artean) harresi antzeko bat egiteko helburuarekin.

Harresi horrek bi funtzio betetzen ditu: alde batetik, gurpil-aulkian jaisten diren adineko pertsonak errepidetik babestea eta, bestetik, kotxeak marra horian aparkatzea eragozte. Izan ere, 2014. urtean gurpil-aulkiko bi erabiltze erori ziren eta zonaldea babesteko eskaera egin zuten Udalean. Bestetik, nahiz eta marra horiko gunea izan eta aparkatzea debekatuta egon, behin eta berriro aparkatzen zituzten kotxeak, eta “arquilloei” esker hori oztopatzea lortu zen.

Apirilean, herritarren postontzian, pertsona batek kexa aurkeztu zuen; dirudienez Udalak burnizko harresia kentzeko agindua eman zuelako. Haren iritziz, ez da interbentzio egokia adineko pertsonen babesgabezia eragingo duelako eta berriro ere kotxeak gaizki aparkatzen hasiko direlako.

Batzordean zinegotzi-ordezkariari galdetu genion erabaki honen inguruan eta, gure harridurarako, “arquilloak” kentzeko agindua eman zuela aitortu zuen. Zinegotziak adierazi zuen jubilatuen elkarteko zenbait erabiltzailek kotxea atean aparkatu nahi dutela eta “arquilloekin” ezin dutela atea ireki. Zinegotzi-ordezkariari erantzun genion ezin dugula ulertu nolatan erraztuko zaien pertsona batzuei zonalde debekatuan, marra horian, aparkatzea eta horregatik, nolatan jarriko den arriskuan gurpil-aulkian ibiltzen direnen segurtasuna.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari argitu dezala Larratxo pasealekuko 26. zenbakian dagoen marra horian (gune debekatuan) aparka daitekeen edo ez.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

2. Udaltzak eskatzen dio Udal Gobernuari, aparkatzeko debekua mantentzen badu, gidariak marra horiak adierazten duena betetzeko neurriak berma ditzala; hau da, kotxeak aparkatzen ez direla zain dezala.
3. Udaltzak eskatzen dio Udal Gobernuari, herritarrek horrelako eskaerak egiten dituztenean, zinegotzi ordezkariak teknikarien iritzia kontuan har dezatela; kasu honetan, Mugikortasun Departamentuko eta Herri Segurtasuneko teknikarien iritzia kontuan har ditzatela.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**